



ARRATIAKO UDALEN

MANKOMUNITATEAREN

"ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

ZERBITZUA" EMATEKO

PREZIO PUBLIKOAREN

ZERGA ORDENANTZA

ARAU-EMAILEA

ORDENANZA FISCAL

REGULADORA DEL PRECIO

PÚBLICO LA

PRESTACIÓN DEL

"SERVICIO DE AYUDA A

DOMICILIO" DE

ARRATIAKO UDALEN

MANKOMUNITATEA"

**OSOKO BILKUREAK
2013KO ABENDUAREN 18KO
OHIKO BATZARREAN HARTU EBAN
ERABAGIAREN BITARTEZ
EMON ZAN ONTZAT**

**APROBADA POR ACUERDO DE LA JUNTA
PLENARIA REUNIDA EN SESIÓN
ORDINARIA
CON FECHA
18 DE DICIEMBRE DE 2013**



ARRATIAKO UDALEN AURKIBIDEA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN "ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA" EMATEKO PREZIO PUBLIKOAREN ZERGA ORDENANTZA ARAU- EMAILEA

INDICE

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL PRECIO PÚBLICO POR LA PRESTACIÓN DEL "SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO" DE ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA"

ZIOEN AZALPENA	1. orr.	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS	Pág. 1
1. XEDEA	1. orr.	1.- OBJETO	Pág. 1
2. LURRALDEKO APLIKAZIO EREMUA	2. orr.	2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN	Pág. 2
3. ORDAINDU BEHARRA	2. orr.	3.- OBLIGACIÓN DE PAGO	Pág. 2
4. PREZIO PUBLIKO KALKULATZEA	3. orr.	4.- DETERMINACIÓN DEL PRECIO PÚBLICO	Pág. 3
5. ERABILTZAILE BAKOITZAK EGIN BEHARREKO EKARPENA KALKULATZEA	6. orr.	5.- CALCULO DE LA APORTACIÓN A REALIZAR POR CADA PERSONA USUARIA	Pág. 6
6. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA	7. orr.	6.- DEVENGO Y ABONO	Pág. 7
7.- EZ ORDAINTZEA	8. orr.	7.- IMPAGO	Pág. 8



ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEAREN
“ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZUA” EMATEKO
PREZIO PUBLIKOAREN
ZERGA ORDENANTZA
ARAU-EMAILEA

ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DEL PRECIO
PÚBLICO POR LA
PRESTACIÓN DEL
“SERVICIO DE AYUDA A
DOMICILIO” DE
ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEA

ZIOEN AZALPENA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa dela bide eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 57. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK emandako zerbitzuen kobrantza arautu nahi da, Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 44. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki.

En virtud de lo establecido en la Ordenanza General reguladora del Servicio de Ayuda a Domicilio y en consonancia con lo establecido en el artículo 57º de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales se pretende regular el cobro de los servicios prestados por ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA en atención a los dispuesto en los artículos 44 y siguientes de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales.

Halaber, Mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 estatu legean xedaturikoa kontuan izanik, Estatuaren Aurrekontu Orokorreko arauetan ezarritako zenbatekoak bete behar dira, eta hemen zehazturiko zerbitzuko erabiltzaileak izan daitezkeen pertsonen gutxieneko sarrerak ezarri dira.

Asimismo, teniendo en cuenta las previsiones hechas por la Ley estatal 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, se atiende a los importes establecidos en las Normas que regulan el Presupuesto General del Estado, marcando los ingresos mínimos de aquellas personas que puedan ser usuarias del servicio que aquí se detalla.

1. ARTIKULUA.- XEDEA

Ordenantza honen xedea Etkez Etxeko Laguntza zerbitzuen prezio publikoa arautzea da zerbitzu horren erabiltzaileentzat.

ARTÍCULO 1.- OBJETO

El objeto de la presente Ordenanza es regular el precio público de la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio para aquellas personas que sean usuarias de dicho servicio.

**2. ARTIKULUA.- LURRALDEKO APLIKAZIO EREMUA**

Ordenantza hau aplikatuko zaie ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN etxez etxeko laguntzaren erabiltzaileei.

3. ARTIKULUA.-ORDAINDU BEHARRA.

3.1.- Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 49. artikuluko lehen paragrafoan ezarritakoari jarraiki, prezio publikoa ordaindu behar dute nahitaez zerbitzuaren onuradunek. ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Ordenantza Arauemailearen arabera ezarriko da prezioa, Ordenantza honen 4. artikuluan xedatu den sistemaren bidez.

3.2.- Errentan edo familia-unitateko pertsona kopuruan aldaketarik egotekotan edo banakako ekarpena ezartzean eraginik izan dezakeen beste edozein inguruabar aldatzekotan, zerbitzuaren onuradunek eta zerbitzuaren prezio publiko gisa ordaindu behar dutenek 15 eguneko epea izango dute ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEARI jakinarazteko, aldaketa egon denetik aurrera zenbatzen hasita.

3.3.- Aurreko lerroaldean aipaturiko aldaketa ekonomikoak hurrengo hiletik aurrera izango ditu ondorioak, eta doitu egingo dira erabiltzaileak ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEARI ordaindu beharreko diru-kopuruak.

3.4.- Prezioa ordaindu behar duenari ezin egotz lekizkiokeen kausengatik ez bada ematen zerbitzua, bidezkoa izango da zenbatekoa itzultzea.

ARTÍCULO 2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN TERRITORIAL

La presente Ordenanza se aplicará a las personas usuarias de la Ayuda a Domicilio de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

ARTÍCULO 3.- OBLIGACIÓN DE PAGO.

3.1.- En atención a lo establecido en el artículo 49 párrafo primero de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, las personas beneficiarias del servicio están obligadas al pago de precio público. Dicho precio se determinará según la Ordenanza Reguladora del Servicio de Ayuda a Domicilio de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, por medio del sistema establecido en el artículo 4º de la presente Ordenanza.

3.2.- Las personas usuarias de los servicios de ayuda a domicilio y, en su caso, sus representantes legales, están obligadas a poner en conocimiento de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, en el plazo de 15 días desde que se produzca, cualquier variación en la renta, o número de personas de la unidad familiar y cuantas circunstancias pueden tener incidencia en el establecimiento de la aportación individual que deben abonar las personas usuarias como precio público del servicio.

3.3.- La modificación económica mencionada en el párrafo anterior surtirá efecto en el mes inmediatamente posterior a aquel en que se haya producido dicha variación económica, ajustando las cantidades que o bien deban abonarse por la persona usuaria a ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

3.4.- Cuando por causas no imputables al beneficiario obligado al pago el servicio que no se preste, se procederá a la devolución del importe correspondiente.

**4. ARTIKULUA.- PREZIO PUBLIKOA KALKULATZEA.**

4.1.- Ekarpen ekonomikoa kalkulatzeko, famili-unitatearen diru baliabideak izango dira kontuan. Ondorio horietarako, hauexek izango dira:

- Onuraduna.
- Ezkontidea edo ezkontideen antzeko harremana duen pertsona.
- Gehienez 18 urte dituzten seme-alabak, etxean bizi eta legez haien kargura daudenak.
- 18 eta 26 urte bitartean dituzten seme-alabak, etxean bizi eta langabezia edo ikasten ari direnak.
- Ezintasuna eta %33tik gorako minusbaliotasun maila duten seme-alabak, edozein adinetakoak, etxe berean bizi direnak, betiere pentsio edo lan-errenta gisa euren sarrerak ez dituztenak.
- Haien pentzura bizi direnak eta etxe berean erroldatuta daudenak.

Baldin eta jarduketak soilik arreta pertsonalekoak badira, bakar-bakarrik famili-unitatearen gaitasun ekonomikoa izango da kontuan, eta bestelako unitatea bada, etxean bizi diren pertsona guztiena.

Ezkontideen harremanak edo antzekoak badira, ahalmen ekonomikoa zati 1,8 egin behar da, per capita errenta ezartzeko. Bi kideetik gorako famili unitateetan, indize horri 0,6 gehituko zaio kide bakoitzeko, errenta ezartzeko.

4.2.- Baloraziorako ondoko elementu hauen arabera kalkulatu da ahalmen ekonomikoa. Hala lortuko da zerga-oinarria:

ARTÍCULO 4.- DETERMINACIÓN DEL PRECIO PÚBLICO.

4.1.- Para el cálculo de la aportación económica correspondiente, se tendrán en cuenta los recursos económicos de la unidad familiar, que a efectos será la siguiente:

- La persona beneficiaria.
- El cónyuge o persona con relación análoga a la conyugal.
- Sus hijos e hijas hasta 18 años, inclusive, que convivan en el domicilio y estén legalmente a su cargo.
- Sus hijos e hijas de entre 18 y 26 años, inclusive, que convivan en el domicilio y estén en paro o estudiando.
- Los hijos e hijas con discapacidad y un grado de minusvalía superior al 33%, de cualquier edad, que convivan en el mismo domicilio, siempre que no tengan ingresos propios en concepto de pensión o rentas de trabajo.
- Personas que dependan económicamente de ellos y que estén empadronadas en el mismo domicilio.

Si las actuaciones son exclusivamente de atención personal, solamente se tendrá en cuenta la capacidad económica de la unidad familiar y si tuvieran otra naturaleza, la de todas las personas que convivan en el domicilio.

En el caso de tratarse de una relación conyugal o análoga, la capacidad económica se dividirá entre 1,8 para establecer la renta per-cápita, en unidades familiares de más de dos miembros, se sumará a este índice un 0,6 por cada miembro para establecer esta renta.

4.2.- Se calculará la capacidad económica de acuerdo a los siguientes elementos de valoración con lo que se obtendrá la Base Imponible:



Famili unitatearen edo honako hauen ondoriozko zerbitzuaren onuradunak direnen sarrera garbi guztiei deritze errenta:

- Lan etekinak, gizarte aurreikuspen prestazioak eta pentsioak barne, araubidea edozein dela.
- Higigarrien eta higiezinen kapital etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.
- Bestelako edozein sarrera subsidiario, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak ezarria.
- Ez dira errentatzat hartuko 39/2006 Legearen 31. artikuluan arauturiko sarreraren ondoriozko diru-kopuruak:
 - a) Baliaezintasun handiaren ziozko osagarria.
 - b) Kargupeko 18 urtetik gorako seme-alaba bakoitzeko prestazioa, %75etik gorako minusbaliotasuna badu.
 - c) Hirugarrenek baliaezintasunaren ziozko kotizazio gabeko pentsioetan dituzten beharrak.
 - d) Hirugarrenek Ezinduak Gizarteratzeko Legean duten laguntza beharragatiko subsidioa.

- Famili unitatearen higigarrien ondareak lorturiko errentak izango dira sarrerak.
- Higigarrien ondarea zenbatzeko, aurreko urteko batez besteko saldoen zenbatekoen eta eskaera-egunean bizikidetzaren unitateko kide guztiek duten ondarearen zenbatekoen arteko batez bestekoa lortuko da.

Se entiende por renta la totalidad de los ingresos netos de la unidad familiar y/o de las personas que resulten beneficiarias del servicio los derivados de:

- Rendimientos de trabajo, incluidas pensiones y prestaciones de previsión social, cualquiera que sea su régimen.
- Rendimiento de capital mobiliario e inmobiliario.
- Rendimientos de las actividades empresariales o profesionales.
- Cualquier otro ingreso subsidiario, que marque la Norma Foral de Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
- No se considerarán rentas las cantidades derivadas de los ingresos regulados en el artículo 31º de la Ley 39/2006:
 - a) Complemento por gran invalidez.
 - b) Prestación por hijo a cargo mayor de 18 años y con una minusvalía superior a 75%.
 - c) Necesidades de terceras personas en las P.N.C por invalidez.
 - d) Subsidio por necesidad de ayuda por 3ª personas en la LISMI.
- Como ingreso se considerará las rentas obtenidas por el patrimonio mobiliario de la Unidad familiar.
- Para el cómputo del patrimonio mobiliario, se obtendrá la media entre los importes de patrimonio de todos los miembros de la unidad convivencial a la fecha de la solicitud y los importes del saldos medios del año anterior.



Nahikoa baliabidetzat hartutakoen azpitik dauden diru-kopuruak salbuetsita geldituko dira zenbaketatik (4 aldiz SBE, bizikidetzaren unitateko pertsonen kopuruaren arabera)**. Gainerako higigarrien ondarea sarrera gisa zenbatuko da, errentari gehituta.

Quedar  exento del c mputo las cantidades inferiores a las consideradas como recursos suficientes (4 veces la RGI en funci n del n mero de personas de la unidad convivencial)**. El resto de patrimonio mobiliario se computar  como ingresos, sum ndose a la renta.

** 4 aldiz SBE 2014. urtea

** 4 veces el RGI a o 2014

Bizikidetzaren unitateko pertsona kopurua N� de personas por unidad convivencial	Pentsiodunak / Pensionistas
1	36.136,80 �
2	45.170,88 �
3 edo gehiago / 3 � m�s	48.784,80 �

➤ Higiezinaren ondarea neurtze aldera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak edo beste zerga administrazio batek horretarako emandako ondasunen ziurtagirian bizikidetzaren unitateko edozein kideren izenean jasotako katastro balioen X4 batura hartuko da aintzat, urteko sarrera gisa joz, eta zenbaketa horretatik kanpo utziko da ohiko etxebizitzat duena edo izan duena (salbuespen gehiezez etxebizitza bat espediente bakoitzeko).

➤ El patrimonio inmobiliario, se computar  considerando como ingresos anuales la suma de los valores catastrales X4 que consten a nombre de cualquiera de los miembros de la unidad de convivencia en el certificado de bienes expedido al efecto por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputaci n Foral de Bizkaia u otorgado por otra Administraci n tributaria, excluyendo de dicho c mputo la que sea o haya sido su vivienda habitual (hasta m ximo de exenci n de una vivienda por cada expediente)

➤ Baldin eta higiezinaren ondare hori alokairuan jarrita badago, hileko sarreratzat hartuko da kontzeptu horrengatik jasotakoa. Hala denean, higiezinaren katastroko gutxieneko balio egozgarria salbuetsita dago sarrera gisa.

➤ En los casos en que este patrimonio inmobiliario est  puesto en alquiler, se considerar n ingresos mensuales lo percibido por este concepto, en este caso se excluye como ingreso el valor catastral m nimo atribuible de dicho inmueble.

4.3.- Kenkari hauek aplikatuko dira zerga-oinarrian:

4.3.- A la Base imponible le ser n restadas las siguientes deducciones:

➤ Ohiko etxebizitzaren alokairuaren gastuak: gastuaren %70, gehiezez urtean 3.000,00 euro (250,00   x 12).

➤ Gastos de alquiler de la vivienda habitual: 70 % del gasto, hasta un m ximo anual de 3.000,00 euros (250,00   x 12)

➤ Ohiko etxebizitza eskuratzeko hartutako kredituen amortizazioak eta interesak: gastuaren %70, gehiezez urtean 3.000,00 euro (250,00   x 12).

➤ Intereses y amortizaci n de cr ditos contra dos para la adquisici n de la vivienda habitual: 70 % del gasto, hasta un m ximo anual de 3.000,00 euros (250,00   x 12)



4.4.- Hala lortuko da pertsona bakoitzeko oinarri garbia.

Familia-unitatearen errenta eta ondarea zehazteko zenbatu beharreko aldia eskuragarri dagoen azken zerga-aitorpenaren urteari dagokiona izango da. Aitorpen hori ez badago, familia-unitatea eratzen duten kide guztiek eskaera-datan dituzten pentsioak, prestazioak, lan-etekinak edota bestelako sarrerak hartuko dira kontuan. Familia-unitatea bi kidek edo gehiagok osatzen dutenean, familia-unitatearen oinarri garbia kalkulatzeko, dagokion indizearekin zatituko da, familia-unitatea osatzen duen kide-kopuruaren arabera, urteko per capita errenta garbia ezartzeko, ordenantza honen 4.1 artikuluan finkatzen den bezala.

5. ARTIKULUA- ERABILTZAILE BAKOITZAK EGIN BEHARREKO EKARPENA KALKULATZEA.

Erreferentziatzeko adierazle bat ezarri da pertsona erabiltzaile bakoitzak egin beharreko ekarpena kalkulatzeko; adierazle hori ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren enpresa esleipendunari zerbitzu ordu bakoitzeko une bakoitzean ordainduko dion prezioa izango da. Orduko prezio hori biderkatu egingo da erabiltzaile bakoitzari kontzeptu guztiengatik eskainiko zaizkion hilabeteko batez besteko ordu kopuruarekin (joan-etorrietako orduak barne). Zerbitzu bakoitzean ematen diren hilabeteko batez besteko orduak ezartzeko biderketa hau egingo da: ematen diren asteko orduak (astelehenetik larunbatera, joan-etorrietakoak barne) x 4,1 (batez besteko hileko asteak).

2014. urterako, etxez etxeko laguntza zerbitzuagatik eta orduko ordaindu beharreko prezioa 25,73 eurokoa da (BEZ-a barne).

Asteburuko ordutegian eta jaiegunetan emandako ordua (Ordenantzaren 12.3 artikuluan ezarritako arreta-ordutegian araututa ez daudenak),

4.4.- Obtención de la base neta por persona.

El período a computar en la determinación de la renta y del patrimonio de la unidad familiar será el correspondiente año de la última declaración fiscal disponible y a falta de esta las pensiones, prestaciones, rendimientos de trabajo, o cualquier otro ingreso existente a la fecha de la solicitud de todos los miembros que forman la misma. Cuando la unidad familiar este formada por dos miembros o más, para el cálculo de la base neta de la unidad familiar, esta, se dividirá por el índice correspondiente según el número de miembros que la integran para establecer la renta neta per-cápita anual, tal y como se establece en el artículo 4.1 de la presente ordenanza.

ARTÍCULO 5.- CÁLCULO DE LA APORTACIÓN A REALIZAR POR CADA PERSONA USUARIA.

Se establece un indicador de referencia para el cálculo de la aportación de la persona usuaria, que consistirá en el precio que en cada momento abone por hora de servicio la ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA a la empresa adjudicataria del Servicio de Ayuda a Domicilio. Este precio hora se multiplicara por el numero de horas mensuales media que se presta a cada usuario por todo los conceptos (incluyendo las horas de desplazamiento). Para establecer las horas de media mensuales que se prestan en cada servicio, se multiplicara las horas semanales que se prestan (de lunes a sabado, incluidas las horas de desplazamiento) por 4,1 (semanas mensuales de media)

Para el año 2014 el coste de precio/hora por la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio es de 25,73 euros.(IVA incluido)

La hora prestada en horario de fin de semana y festivos (no reguladas en el horario de atención establecido en el artículo 12.3 de la Ordenanza), según el



zerbitzua arautzeko araudiaren arabera, % 25 garestituko da (32,16 €/orduko, 2014. urtean).

SBE gainditzen ez duten erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren %5 ordainduko dute. Eta hala proportzioan eta pixkanaka, Gizarte Politika, Familia eta Mendetasun eta Ezintasunaren Arretarako Estatu Idazkaritzak onuradunaren gaitasun ahalmenari eta onuradunak parte hartzeko irizpideei buruz 2008ko abenduaren 2an emandako Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

Ordu kopuru jakin bati aplikatuko zaizkio ehuneko horiek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzaile bakoitzerako izapideturiko espedientearen ebazpena dela bide ezarritako kopuruari.

Honela aplikatuko dira ehunekoak (urtekoa da sarrerei buruzko aipamena):

Urteko sarrerak:

SBERainoko sarrerak (9.034,20 € + 1 pentsiodun bat) → kostuaren %5 (1,29 €/h)
 SBE → 11.000 € → kostuaren % 10 (2,57 €/h)
 11.001€ → 13.500 € → %15 (3,86 €/h)
 13.501€ → 16.000 € → %20 (5,15 €/h)
 16.001€ → 18.500 € → %25 (6,43 €/h)
 18.501€ → 21.000 € → %30 (7,72 €/h)
 21.001€ → 24.000 € → %40 (10,29 €/h)
 24.001€ → 27.000 € → %50 (12,86 €/h)
 27.001€ → 30.000 € → %60 (15,44 €/h)
 30.001€ → 33.000 € → %70 (18,01 €/h)
 33.001€ → 36.000€ → %80 (20,58€/h)
 36.000 baino gehiago → %85 (21,87 €/h)

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun orok zerbitzuaren prezio orduko kostuaren %5 ordainduko du gutxienez, eta zerbitzuaren kostuaren %85 gehienez.

6. ARTIKULUA.- SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

6.1.- ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN Lehendakaritza Dekretuak, Osoko Bilkurak Gobernu Batzordeak onetsita hasiko da prezio publikoaren sortzapena; aurretik zerbitzua emateko espedientea hasi beharra dago.

reglamento regulador del servicio se encarecerá en un 25 % (32,16 €/hora año 2014).

Aquellas personas usuarias cuya renta no supere el RGI aportarán el 5 % del costo de servicio. Y así de forma proporcional y progresiva tal y como establece la Resolución de 2 de diciembre de 2008 de la Secretaría de Estado de Política Social, Familias y Atención a la Dependencia y a la Discapacidad, sobre la capacidad económica del beneficiario y sobre los criterios de participación de este.

Dichos porcentajes se aplicarán al número de horas que en virtud de la resolución del expediente tramitado por los Servicios Sociales de Bases se estimen necesarios para cada persona usuaria.

Los porcentajes se aplicarán de la siguiente manera (la referencia a los ingresos es anual):

Ingresos anuales:

Ingresos hasta RGI (9.034,20 € + 1 persona pensionista) → 5 % costo (1,29 €/h)
 RGI → 11.000 € → 10 % costo (2,57 €/h)
 11.001€ → 13.500 € → 15 % (3,86 €/h)
 13.501€ → 16.000 € → 20 % (5,15 €/h)
 16.001€ → 18.500 € → 25 % (6,43 €/h)
 18.501€ → 21.000 € → 30 % (7,72 €/h)
 21.001€ → 24.000 € → 40 % (10,29 €/h)
 24.001€ → 27.000 € → 50 % (12,86 €/h)
 27.001€ → 30.000 € → 60 % (15,44 €/h)
 30.001€ → 33.000 € → 70 % (18,01 €/h)
 33.001€ → 36.000€ → 80 % (20,58 €/h)
 Mas de 36.000 → 85 % (21,87 €/h)

Toda persona beneficiaria del SAD abonará como mínimo el 5% del coste precio/hora del servicio, y como máximo el 85 % del coste del mismo.

ARTÍCULO 6.- DEVENGO Y ABONO

6.1.- El devengo del precio público se iniciará con la aprobación por Decreto de Presidencia, Pleno o Comisión de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, previo expediente de concesión del servicio. Una vez devengados, deberán abonarse dichos



Horiek sortutakoan, hilerio ordaindu beharko dira zerbitzuok, onuradunak edo baimendutako pertsonak emandako bankuko kontuaren kargura.

6.2.- Ordenantza honetan ezarritako zerbitzua hastean sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra. Hilean emandako orduen proportzioan ordainduko da zerbitzua epe horretatik beherako denboran.

6.3.- Zerbitzua bost lan-egunetik beherako aldiaren eteten bada, ezarritako kuota osoa ordainduko da. Bost lan-egunetik gorako etenaldiengatik, zatizko kuota ordainduko da, eta horren zenbatekoa hilean emandako orduen proportzioan ordainduko da hile osoa baino zerbitzu laburragoko aldia, hilean median ezarritako orden gainean. Aldi baterako etenaldia hile osora luzatzen bada, ezarritako duen hileko kuotaren %10 ordainduko du onuradunak.

6.4.- Aldi baterako etenaldiak ezin izan daitezke hiru hilez jarraian baino denbora luzeagoan. Denbora hori igarotakoan, iraungi egingo da etxez etxe laguntza zerbitzua.

7. ARTIKULUA.- EZ ORDAINTZEA

7.1.- Etxez etxe laguntza zerbitzua emateko, Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoa ordaindu behar da. Prezio publikoa ordaindu ezean, ez da zerbitzua emango.

7.2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, Tokiko Ogasunen Foru Arauan eta Tokiko Ogasunen Foru Arauan ezarritako premiamendu prozeduraren arabera eskatu ahal izango dira prezio publiko honen zorrak, 9/2005 Foru Arauaren 49. artikuluko 3. lerroaldean xedatu denaren arabera.

servicios de forma mensual con cargo a la cuenta bancaria facilitada por la persona beneficiaria o autorizada.

6.2.- La obligación de pago de este precio público nace desde que se presta el servicio al que se refiere esta ordenanza. El pago de dicho servicio en periodos inferiores al mes completo se abonará proporcionalmente a las horas prestadas ese mes, sobre las que tenga establecidas mensualmente.

6.3.- En caso de suspensión temporal del servicio, por un periodo inferior a cinco días laborales, se abonará el total de la cuota que tenga establecida. Por suspensiones superiores a cinco días laborales, se abonará una cuota parcial cuya cuantía sea proporcional a las horas prestadas ese mes, sobre las que tenga establecidas de media mensualmente. Si la suspensión temporal se extiende al mes completo se abonará por parte del beneficiario el 10 % de la cuota mensual que tenga establecida.

6.4.- Las suspensiones temporales no podrán prolongarse más de tres meses consecutivos. Sobre pasado este tiempo se procedería a la extinción del S.A.D.

ARTÍCULO 7.- IMPAGO.

7.1.- La prestación del servicio de ayuda a domicilio está condicionada al pago de precio público regulado en esta Ordenanza. La falta de pago del precio público dará lugar a la no prestación del servicio.

7.2.- La deudas del presente precio público podrán exigirse conforme al procedimiento de apremio establecido en la Norma Foral General Tributaria y en la Norma Foral de Haciendas Locales, según lo establecido en el artículo 49º párrafo 3.º de la Norma Foral 9/2005.



Igorren, 2013ko abenduaren 18an

En Igorre a 18 de diciembre de 2013

PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA

Bait. IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA
EL SECRETARIO-INTERVENTOR acctal.